

INAZIO BEREZIARTUA MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

«Esadazu zerbait, eta ahaztu egingo dut; erakutsiezadazu zerbait, eta gogoratuko dut; baina egin nazazu zerbaiten partaide, eta ikasi egingo dut.»



MUSIKA ESKOLAKO ORDUTEGIA:

Astelehenetik Ostiralera 10:30etatik - 22:00etara.

IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA:

Goizez: Astelehena 10:30etatik -12:30 era

Arratsaldeaz: Astelehenetik Ostiralera, 15:00etatik - 20:30etara


MUSIKARAKO HEZKUNTZA eta HEZKUNTZA MUSIKAREKIN

HAURRAREN GARAPEN INTEGRALA DUGU HELBURU

Musikarekin kontaktuan ezarri, musikarekin eta musikaz ikasi zein gozaten irakasten da Elgoibarko Musika Eskolan, haur, gazte eta helduen topalekua da.

Azken xedea Musika eta Jatorri Tradizionaleko Dantzan trebakuntza oparoa eskaintzea da, edozein adineko zaletuei zuzendua.

Halaber, herri inguruko musika garapenean laguntzen du eta ikasleen interes profesionala piztea bilatu aurrerago kontserbatorioetan ikasketak burutzeko.



MUSIKA HEZKUNTZAREKIN LEHEN KONTAKTUA

Ikasiko al genuke inoiz hitz egiten sintaxia, gramatika, ortografia eta analisi gramatikalarekin hasiko bagina? Haur txikiek perfektuki hitz egiten dute irakurketan eta idazketan trebatu gabe: belarriz ikasten dute. Bada berdina da musikarekin.

Marcel Landowski

Ikaskuntza aktiboko estrategia eta printzipio metodologikoak erabiltzen ditugu oinarriko gaitasunak gara ditzaten.



Ikasgelan hainbat jarduera-ildo erabili eta garatzen dira:

- Ahotza; arnasa, afinazioa, abesteko posizio egokia.
- Entzumena; bizipenezko entzumena, entzumen aktiboa.
- Gorputza; gorputz mugimendua eta gorputz perkusioa.
- Instrumentuak; perkusio txikia nagusiki.

- ✓ Klaseen planteamendua ludikoa, dibertigarria eta positiboa izango da.
- ✓ Ikasleak bere ikasketaren protagonista izango dira. Estrategia gisara "aurkikuntza gidatua" erabiliko da.
- ✓ Ikasleak proposaturiko jarduerekin disfrutatzea bilatuko da eta aldi berean entzuteak, kantatzeak, interpretatzeak eta aldi desberdinetako zein estilotako musika ezagutzeak sortzen duten plazerra asimilatzea.
- ✓ Ahal den guztietan kontzertuetara, dantzaldietara, antzerkira... joatea bultzatuko da.



- ✓ Errespetua, tolerantzia, laguntasuna, ardura, konpromezua, berdintasuna... bezalako balioak sustatuko dira.



HASTAPEN EKO HAURREK

EKINTZA HAUETAN HARTUKO DUTE PARTE

- *TRINIDADEETAKO DANBORRADAN ETA EUSKAL DANTZA JAIALDIAN*
- *KURTZO AMAIERAKO JAIALDIAN*
- *HERRIKO ANTZOKIKO DANTZA JAIALDIAN*
- *GABON KANTEN KALE KONTZERTUA ETA PLAZARA DANTZARA*



HASTAPEN MAILA	ASTEAN	MUSIKA	DANTZA	INSTRUMENTUA
		45 minutu		30 minutu
5-6 URTE		2 saio		
6-7 URTE		2 saio	Saio 1	
7-8 URTE		2 saio	saio 1	Rotazio saio 1